

ANIMALIAK EDUKITZEA ETA BABESTEA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA EREDUA

DATA: 2013-06-20

1. BILERA (18:30-20:30)

PARTAIDE KOPURUA: 60-65 pertsona

BILERAREN AURKEZPENA: ZERGATIK EGITEN DA BILERA HAU?

2012.urtean Udalak Pausoz pauso Auzoz auzo ekimena jarri zuen martxan eta herriko auzo ezberdinetan hainbat bilera egin zituen. Bilera hauetan auzotarrengandik hainbat proposamen jaso zituen Udalak eta hauei pixkanaka bada ere erantzuna ematen ari da. Hauen artean garrantzitsuenetarikoa parke eta kaleen garbiketarena izan zen, eta zehatz-mehatz txakur kakek sortzen dituzten arazoena, auzo guztietan errepikatu zen eta gainera herritarrek lehentasuna eman zioten arazoa konpontzeari.

Hau horrela, bilera honetan, gaur egun onartzeko dagoen ordenantzaren berri eman eta bertan agertzen diren puntu azpimarragarrienak azalduko dira. Eta bestalde animaliak ibili daitezkeen zonalde eta ordutegien inguruko iritzi, ideia eta proposamenak jasoko dira taldeko dinamika baten bitartez.

BILERAREN EDUKIAK:

Edukien inguruan, animaliak edukitzeko eta babestea arautzen duen ordenantza eredia EAEn, ekainaren 1ko 101/2004 Dekretua urriaren 29ko 6/ 1993 Legearen testuinguruan kokatzen dela adierazi da hasieratik.

Hau aipatu ondoren, ordenantzaren puntu ezberdinen argi bideak eman dira. Hasteko animaliak edukitzeko arau juridikoaren barnean izaera orokorreko arauetan izaera orokorreko arauak zerrendatu dira:

4. artikulua: Betebeharrak
5. artikulua: Animalien identifikazioa
6. artikulua: Edukitzeko baldintzak
7. artikulua: Edukitzeko mugak
8. artikulua: Abandonaturiko animaliak
9. artikulua: Nola jardun animalia abandonatuen kasuan
10. artikulua: Kaleko animaliak
11. artikulua: Hildako animaliak jasotzea
12. artikulua: Nola jardun animaliak eraso egin badu
13. artikulua: Debekuak
14. artikulua: Salbuespenak
15. artikulua. Araubide orokorra
16. artikulua. Bide publikoan txakurrak edukitzea

Zerrenda hau aipatu ondoren, bertan agertzen diren artikuluko batzuk zabalago adierazi dira:

Animalia abandonatuen kasuan jarraitzen diren pausoak zeintzuk diren adierazi da.

1. Administrazioak bilduko ditu abandonaturiko animaliak.
2. Animaliak biltze zentroan legeak ezarritako epean egongo dira. (30 egun) Tarte horretan jabeak animalia berreskuratu nahi badu, jabea dela egiaztatu eta egonaldiko gastuak ordaindu beharko ditu.
3. Behin ezarritako epea pasata identifikatu gabeko animaliei honako neurriren bat ezarriko zaie:
 - Animalia jabetzarekin geratu
 - Adopzioan eman

- Sakrifizio eutanasiakoa
4. Animalia identifikatuta badago, jabeari jakinaraziko zaio. Hortik aurrera zazpi egun izango ditu animalia berreskuratuzeko, bertan sortutako gastuak ordaindu ostean.

Bide publikoan txakurrak edukitzea

1) Bide publikoetan, BIDEGORRIETAN, PARKE eta LORATEGIETAN txakurrak lokarriarekin (gehienez 2mkoa) eta lepokoarekin eraman behar dira. Arriskutsuak diren txakurrak muturrekoa ere eraman beharko dute.

2) Debekatuta dago txakurren gorozkiak bide publikoetan, parkeetan, lorategietan, parterreetan, bideetan eta oro har, apaindura edo pertsonen pasorako den edozein lekutan uztea.

3) Utzitako kaka hondarrak animalia daraman pertsonak jaso beharko du, edozein kasutan bera baita araua betetzearen erantzulea.

4) Salbuespena: arriskutsuztat sailkatuak ez dauden txakur edota erasotzeagatik aurrekaririk ez duten txakurrak, libreki ibili ahalko dira jabea lagun dutela horretarako zehaztutako guneetan eta ordutegietan.

a) Azarotik martxora 17:00-10:00

apiriletik urrira 19:00-10:00

Vaguada Goiegi (Pinutegi kalea) / Goiegi (Goiegiko parkea goia) / Oztaran (Plazaola parkea) / Oria (Zelaialde, Oria etorbidea)

b) Urte osoan 20:00-10:00

Atsobakar (atzeko parkea) / Goiegi (goiegiko parkea behea) / Loidi (parkea) / Sasoeta (urdaburu plaza eta Antxota kaleen arteko parkea) / Loidibarren (San Martzial plaza) / Hirierdia (Somoto eta Zumaburu parkeak) / Oztaran (parkea) / Bitarte (Arranbide eta Tribuna artean) / Oria (Brunet eta Antxisu parkeak)

Izaera orokorreko arauak zerrendatu diren bezala, arriskutsuak izan daitezkeen animalien inguruan dauden artikulua ezberdinak ere izendatu eta azalpen txiki bat eman da:

17. artikulua. Araubide orokorra

18. artikulua. Lizentzia. Eta betekizun batzuk ziurtatu behar dira

- Adinez nagusia izatea.
- Hainbat delituengatik kondenarik ez izatea.
- Aurreko lizentzia baten arau hauste larri edo oso larria egin izanagatik ezarritako zigor epea pasatua egotea.
- Ahalmen fisikoa eta psikologikoa izatea.
- Erantzukizun zibileko aseguruia izatea, estaldura 120.000 eurotik gorakoa.

19. artikulua. Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroa

20. artikulua. Segurtasun neurriak

21. artikulua. Salbuespena

22. artikulua. Garraioa

Edukien azalpenek bukatzeko, ondorengo puntuei ere aipamen bat egin zaie.

III. Titulua _ Animaliekin zerikusia duten jarduerak

I. kapitulua. Gune zoologikoak

II. kapitulua. Erakusketak eta lehiaketak

IV. Titulua _ Ikuskapena eta kontrola

V. Titulua _ Zehatzeko araubidea

Azalpen hauen ondoren 15 minutuko tarte ireki da zalantzak edo iritziak plazaratu ahal izateko.

BILERAREN DINAMIKA:

Edukien nondik norakoak azaldu ondoren talde dinamikari hasiera emateko, ordenantzaren animaliak libre ibiltzeko gune eta ordutegien lanketa proposatzen dela adierazi da.

Lanketa hau aurrera eramateko, talde txikietan eta ondoren talde komunean lan egin da.

Talde txikietan jarri direnean udalak proposatzen dituen gune eta ordutegien inguruan bakoitzaren iritzia inguruan hitz egin da eta proposamen bat egin dute. Ondoren, taldea handian jarri eta aurretik hitz egindakoa plazaratu da.

Gune eta ordutegiez gain, gaiaren (ordenantzaren inguruan) landu beharreko beste proposamen batzuk ere aipatu dira.

BETARATUTAKO EK EGINDAKO PROPOSAMENAK.

UDALETXEAK PROPOSATZEN DUENA GUNE BERDEEKIN:

1. VADOAGA-GOIEGI (PINUTEGI KALEA).
2. GOIEGI (GOIEGIKO PARKE GOIA).
3. OZTARAN (PLAZAOLA PARKEA).
4. ORIA (ZELAIALDE)
5. ORIA (ORIA ETORBIDEA)

PROPOSATZEN DEN ORDUTEGIA:

JABEEZ LAGUNDUTAKO TXAKUR ASKEAK:

AZAROATIK-MARTXORA: 18:00-12:00

APIRILATIK-URRIRA: 19:00-10:00

Talde guztien iritziek bat egiten dute bost gune hauen inguruan:

- Ordu oro, urteko egun guztietan.
- Ordutegi librea txakurrak aske eramateko.
- Ordutegirik gabe.
- Ordutegi librea urte osoan zehar.
- Gune berdeetan 24 orduak aske ibiltzeko aukera.

GUNE BERDEARI BURUZKO IRITZI OROKORRA:

- Gune berdearen ezaugarriak: egunero eta ordu oro txakurra libre ibiltzeko aukera izan beharko luke.
- Gune berdeak ez dira logikoak, erdigunean baten batek izan beharko luke.
- Ordutegi hauekin ados egon ez arren, urte osoan ordutegi berdina jarriko luke talde batek; hau da, 18:00- 12:00.

UDALETXEAK PROOSATZEN DUEN GUNE GUNE URDINEI:

6. ATSOBAKAR (ATZEKO PARKEA).
7. SASOETA (URDAURU PLAZA- ANTXOTA KALEEN ARTEKO PARKEA)
8. ERDIGUNEA (SOMOTO PARKEA)
9. LOIDIABARREN (SAN MARTZIAL PLAZA)
10. ERDIGUNEA (ORIA IBAIAREN PASEALEKUA)
11. GOIEGI (GOIEGIKO PARKE BEHEA)
12. LOIDI (PARKEA)
13. ERDIGUNEA (ZUMABURUKO PARKEA)
14. OZTARAN (PARKEA)
15. BITARTE (ARRANBIDE PARKEA)
16. BITARTE (TRIBUNETAKO PARKEA)
17. BITARTE (ARRANBIDE-TRIBUNA ARTEKO PARKEA)
18. ORIA (BRUNET ETA ANTXXISU PARKEAK)

PROPOSATZEN DEN ORDUTEGIA:

JABEEZ LAGUNDUTAKO TXAKUR ASKEAK:

ORDUTEGIA: 20:00-10:00

Talde guztien iritziek bat egiten dute gune hauen inguruan:

- Ordutegirik gabekoak izan beharko lirateke (gune berdeak bezala).
- Ordutegirik gabe, urteko egun guztiak. Gune libreak.
- Ordutegi urdina ez da nahikoa, ordutegia luzatu.

Orokorrean taldearekin ados, ñabardura batzuekin:

- Ordutegi urdina ez da nahiko (gune urdin batzuk libre bihurtu eta beste batzuk gune berdeen ordutegi malguena jarri: 7/8/9/10/11/16/17)
- 6. GUNEA: haur parkea hesitua dagoenez, ondo gunea berdea bihurtu.
- 6. GUNEA: Inguruan daude gune gorriak mantendu.
- 15. GUNEA: Udalarekin ados.
- 16. GUNEA: Gune hori zakurrekin ibiltzeko jarri nahi bada ordutegi horretan, argiztapen egokia jarri beharko litzateke gutxienez.

GUNE URDINEI BURUZKO IRITZI OROKORRA

- Gune libre izatea urte osoa ordu guztiak.
- Asko jota gune urdinak gune berde bihurtzea. (gune berdeetako ordutegi zabalarekin).
- Gunearen ordutegia zabaldu beharko litzateke, 11:00-19:00.

UDALETXEAK PROPOSATZEN DUEN GUNE GORRIEI BURUZKO IRITZI OROKORRA:

**ASKATASUN PARKEA
TXIMITARRETA PARKEA
URBARTE (PIRATEN PARKEA)
URBARTE (TIROLONAREN PARKEA)
FROILAN ELESPE PARKEA**

**PROPOSATZEN DENA:
GUNE HONETAN TXAKURRAK DEBEKATUTA EGOTEA.**

Talde guztien iritziek bat egiten dute gune hauen inguruan:

- Talde batek dio, Atsokabarreko gune gorriak agian mantendu daitezkeela.

GUNE GORRIEI BURUZKO IRITZI OROKORRA

- Ordutegiak jarri.
- Gune gorrien ezaugarria desagertu, gune hautan txakurra askatu gabe ibitzea.
- Txakurra trantsituko bidetik ibiltzea ez debekatzea.
- Gune gorriak desagerraraztea, behitzar txakurrak paseatzeko aukera (udaletxearen atzean atez ere.)

PROPOSATUTAKO EDO AZALDUTAKO BESTE GAI BATZUK

ARRAZA ARRISKUTSUETAKO ZAKURRAK.

- Arraza arriskutsuetako zakurra solte ibiltzeko guneak (Urbarte, Mitxelingo gunea)
- Arraza arriskutsuetako zakurrak zonalde batzuetan solte ibiltzeko aukera.
- Arraza arriskutsukoak direnak arau gehiegi besteekin konparatuz. Berdinu hau.
- Bilera bat txakur arriskutsuen jabeekin.

ZONALDE, ORDUTEGIAK ETA GUNE BATZUEN EGOERA.

- Zakurrekin hain beste arazo baldin badaude, zakurrentzako bakarrik izango den gune bat sortu. EZ DIRA ARRISKUTSUAK.
- Zakurrentzako parkea.
- Zakurrentzako parkeak itxien sorrera (erdigunean). Umeek bertan sartu ahal ez izatea.
- Ordutegiak beti libreak.
- “Sentido común”, ordutegirik ez.
- Gune gorriak desagerrarazi, injustuak dira.
- Gune bat egokitzea askatasunaren parkean ordutegi batzuekin; adibidez, anbulatorioa zaharraren inguruan geratzen diren lorategiak adibidez.
- Debekatuta “debekatzea”.
- 1-2 guneetan hesiak daude eta bertan ardiak, arriskutsua da zakurrentzat.
- Loidi eta Oztaran 24 orduak libre izatea.
- Lehenengo isunekin hasi eta gero zonaldeak jarri.
- Atsobakarren Usurbilgo zonaldean belarra oso luzea egoten da.
- Mitxelin ondoko gunean kristalak. Arriskutsua.

TXAKUR KAKAK ETA ISUNAK

- Udalak txakur kakak jasotzen ez dituzten jabeekin neurriak hartu. Isunak jarri.
- Jabe guztiek txakur kakak jasotzea.
- Lotuta ematea eta kakengatik isunak jartzea.
- Santzioak txakur kakak jasotzen ez dituzten jabeek. Munizipalei deitu eta beraien konpetentzia ez dela esaten dute.
- Lehenengo isunekin hasi eta gero zonaldeak jarri.

ERRESPETUA / ELKARBIZITZA / KONTZIENTZIAZIOA.

- Zakurren eskubideak kontutan izan.
- Txakur jabeenganako errespetu gutxi ikusten da.
- Sasoetan zakur solte asko.
- Zakur abandonaturen bat bilatutakoan udaltzainei deitu eta udaltzainek berak geratzea duen esan. (beste kasu batzuetan txakurraren bila joan dira).
- Kanpainak auzoetan.
- Umeek eta zakurrek elkarbizitzako saioak.
- Txipak kontrolatu.
- Zentsu bat egin.